

GRAMATIKA BATZORDEAREN IRIZPENAK EDO KONTSULTA-ERANTZUNAK

Gasteizen, 1999ko azaroaren 15ean.

Bahá'í hitzaren deklinabidea dela eta Pedro Urkijo jaunari erantzuna

Eman zaizkigun bi aukeren artean zein hobetsiko genukeen galdetu digu Pedro Urkijo jaunak:

1. *Bahá'íak, Bahá'íei, Bahá'íekin, Bahá'íentzat, ...*
2. *Bahá'ítarrak, Bahá'ítarrei, Bahá'ítarrekin, Bahá'ítarrentzat, ...*

Hona hemen arazo hau dela eta Gramatika batzordearen iritzia:

Gramatika batzordearen ustez eta hitzaren bukaerako *-í* atzizkia geniti-boari dagokiona denez, lehen aukera litzateke hobestekoa; hau da, *-tar* atzizkirik ez daramana. Horrekin batera, hitzaren eta kasu-markaren artean marra idaztea gomendatzen dugu, baldin eta *-í* atzizkia mantendu nahi bada. Era honetara deklinatzea gomendatzen dugu, beraz:

Bahá'í-ak, Bahá'í-ei, Bahá'í-ekin, Bahá'í-entzat, eta abar.

*Jesus Mari Makatzaga,
Gramatika batzordeko idazkaria*